

# GRIPEAREN ZAINZA

EUSKAL AUTONOMIA  
ERKIDEGOA

2017-2018 DENBORALDIA

- ✓ Sasoiko gripearen zaintza
- ✓ Ospitaleratutako gripe-kasu baieztatu larrien zaintza
- ✓ Gripe-sindromeagatik Lehen Mailako Arretan izandako kontsulten maiztasuna
- ✓ Gripe-agerraldien zaintza
- ✓ Arnas birus sintzitalaren (ABS) zaintza mikrobiologikoa

## AURKIBIDEA

---

<b>1. Euskadiko Sare Jagolea</b> .....	1
1.1. Sarrera .....	1
1.2. 2017-18 gripe-denboraldiak Euskal Autonomia Erkidegoan izandako bilakaera .....	1
1.3. Kasuen ezaugarriak .....	2
1.4. Zaintza mikrobiologikoa .....	4
1.5. Gripe-denboraldien konparazioa .....	5
1.6. Gripearean aurkako txertoaren eraginkortasunaren kalkulua .....	5
1.7. Gripearean epidemia-agerraldiak .....	6
1.8. Ospitaleratutako gripe-kasu baieztatu larriak (OGKBL-EAE) .....	6
1.9. Gripe-sindromeagatik Lehen Mailako Arretan izandako kontsulten maiztasuna...	11
1.10. Arnas birus sintzitalaren (ABS) zaintza mikrobiologikoa.....	13
<b>2. Gripea Zaintzeko Espainiako Sistema Zelataria (ScVGE).</b> .....	13
2.1. 2017-18 denboraldiko gripe-jarduera (ScVGE). .....	13
2.2. Datu biologikoak (ScVGE). .....	14
2.3. Arnas Birus Sintzitalia .....	16
2.4 Gripe-birusekin lotutako agerraldiak (ScVGE). .....	16
2.5. Ospitaleratutako gripe-kasu baieztatu larriak (ScVGE). .....	17
2.6. Ospitaleratutako gripe-kasu egiaztatuak (Chosp). .....	18
2.7. 2017-18 denboraldiko gripearean aurkako txertoaren eraginkortasuna.....	19
<b>3. Gripearean nazioarteko bilakaera</b> .....	20
<b>4. Gripe zoonotikoa edo aldaera</b> .....	21
<b>5. Osasunaren Mundu Erakundearen aholkuak 2018-19 denboraldiko gripearean aurkako txertorako</b> .....	21
<b>6. Bibliografia-erreferentziak</b> .....	22

## **1. EAE-KO SARE JAGOLEA.**

---

### **1.1.- Sarrera.**

2017-18 gripe-denboraldian, Osakidetzako Lehen Mailako Arretako 48 medikuk (37 mediku orokor eta 11 pediatra), Donostiako Unibertsitate Ospitaleko birologia-laborategiak eta EAEko Zaintza Epidemiologikoaren Unitateak parte hartu dute Sare Jagolearen bidez. Gainera, lurralde bakoitzeko pertsona nagusientzako egoitza bateko medikuek ere parte hartu dute. Zainketa-denboraldia 2017. urteko 40. astetik (urriaren 2tik 8ra) 2018ko 20. astera (maiatzaren 14tik 20ra) bitartekoa izan zen.

Zaindutako populazioa, gripe-jardueraren tasak kalkulatzeko beharrezko izendatzailea osatzen duena, 62.061 pertsonak osatzen dute (EAEko populazioaren % 2,86) eta EAEko populazio osoa ordezkatzeko du.


Ospitaleratutako gripe-kasu baieztatu larrien zaintzan, Gurutzeta, Basurtu, Donostia eta Araba Unibertsitate Ospitaleek hartu dute parte, bai eta Galdakaoko ospitaleak, San Eloy ospitaleak eta Santa Marina ospitaleak ere.

Osakidetzako laborategiek arnas birus sintzitalaren isolamenduen berri ematen dute, eta horiek sasoiko gripearen zaintzako txostenetan jasotzen dira.

### **1.2.- 2017-18 Gripe-denboraldiaren bilakaera Euskal Autonomia Erkidegoan.**

2017-18 denboraldian, guztira, 1.921 gripe kasu erregistratu ziren (tasa metatua 100.000 biztanleko 3.605 kasu). Denboraldi horretan, 100.000 biztanleko 52,46 kasuko epidemia atalasea ezarri zen, eta atalase hori 2017ko 50. astean gainditu zen (100.000ko 123,65 kasu). Epidemia-uhina atalasetik gora mantendu zen 14 astean zehar, eta epidemia aurreko balioetara itzuli zen 2018ko 12. astean (100.000ko 49,91 kasu). Gripe-jarduerarik handieneko astea 2018ko 3.a izan zen (100.000ko 418,79 kasu) (1. irudia).

1. irudia. 2017-2018 gripe-denboraldiaren bilakaera. EAeko Sare Jagolea.



Denboraldi honen ezaugarria izan da jarduera-mailak ertainak izatea, 3/2018 eta 4/2018 asteetan izan ezik, bi aste horietan intzidentzia-tasak (418,79 eta 408,67) hurbil egon baitziren intentsitate altuko atalaseko balioetatik. 2017-18 denboraldian, uhin epidemikoa 2016-17 denboraldiko aste berean hasi da, baina aste batzuk gehiago luzatu da, 14 aste iraun baititu; 2016-17 denboraldian, berriz, 10 aste iraun zituen.

**1.3.– Kasuen ezaugarriak.**

2017-18 denboraldian erregistratutako kasuen % 51,2 emakumeenak izan ziren, % 46,4 gizonenak eta kasuen gainerako % 2,4an ez zen datu hori jaso.

Kasuen % 15,4k arrisku-faktoreen bat zuten. Pazienteen % 6,8k arnas gaixotasun kronikoren bat zuten, % 4,0k zirkulazio-sistemako gaixotasunak, % 3,2k gaixotasun metabolikoak, % 1,1ek immunoeskasiak, % 0,1ek gibeledko gaixotasunak, % 0,6k giltzurruneko gaixotasun kronikoa, eta % 0,9k obesitatea. Kasuen % 0,4 haurdun zeuden emakumeak izan ziren.

Arrisku-talderen bateko kide izateagatik gripearen kontrako txertoa hartzea zegokien artean (403 kasu), % 63,5ek ez zuen txertoa hartu.

Erregistratutako sintomen maiztasuna 1. taulan dago.


1. taula. Kasuen sintomen maiztasuna (%).

2017-18 denboraldia. EAeko Sare Jagolea.

Sintomak	%
Sukarra edo febrikula	% 96,9
Ondoeza gorputz osoan	% 87,4
Eztula	% 91,4
Sintomak bat-batean agertzea	% 70,7
Zefalea	% 64,1
Mialgiak	% 60,2
Eztarriko mina	% 69,7
Hotzikarak	% 45,4
Disnea	% 10,6

Gripe kasu gehien jasan zuen adin-taldea 0 eta 4 urte artekoa izan zen (100.000ko 11.268 kasu), aurreko 2016-17 denboraldian erregistratutako tasa baino askoz handiagoa (2. irudia).

2. irudia. Gripe-tasak adin-taldeka. 2011-12tik 2017-18ra. EAeko Sare Jagolea.



#### 1.4.- Zaintza mikrobiologikoa.

Denboraldiko lehen bi isolatzeak, bi B birusenak, 45/2017 astean izan ziren, lagin zentineletan.


1.213 lagin aztertu ziren, horietatik 726 (%59,8) iturri zentineletakoak (Sare Jagolea), eta 487 (%40,2), iturri ez-zentineletakoak (Ez Jagolea).

Sare jagolean aztertutako 726 laginetatik, 458 (%63,08) izan ziren positiboak, eta sare ez-jagoleko 487 laginetatik, berriz, %100.


Gripearen birusean positiboak izandako 945 laginetatik (jagoleak zein ez jagoleak) 760 (%81) B motakoak izan ziren, eta 185 (%19), A motakoak.

3. irudian, banaketa adierazten da, sistema zelatarian (Sare Jagolea) zein sistema ez zelatarian isolatutako azpimoten arabera; 4. irudiak, berriz, genotipo nagusia adierazten du (215 lagin).

3. irudia - Isolatutako gripe-birusen azpimotak (%). Sare jagolea eta ez-jagolea, EAE, 2017-18.



4. irudia - Genotipatua (%). Sare jagolea eta ez-jagolea, EAE, 2017-18.




B motako birusaren zirkulazioa izan da nagusi, argi eta garbi, lagin positiboaren %81ekin. Genotipodun birusen artean, %77 B/Phuket/3073/2013 birusak ziren.

### **1.5.- Gripe-denboraldien konparazioa.**

5. irudiak 2001-2002 eta 2017-2018 denboraldien arteko gripearen uhin epidemikoak eta denboraldi horietako birusen azpimotak adierazten ditu.

5. irudia. Gripea. Birusen intzidentzia-tasak eta azpimotak, 2001-02 eta 2017-18 artean. EAeko Sare Jagolea.



### **1.6.- Gripearen aurkako txertoaren eraginkortasunaren kalkulua.**

Aurten ere, Euskal Herriko Sare Jagoleak cyceEVA (Gripearen aurkako txertoaren eraginkortasunaren inguruko kasuak eta kontrolak) kasuen azterketan parte hartu du, Europako I-MOVE (Monitoring the influenza vaccine effectiveness in the European Union and European Economic Area) proiektuaren barruan.

I-MOVE+ (Gripearen aurkako txertoaren eraginkortasunaren estimazioak gripe egiaztatuarekin ospitaleratutako 64 urtetik gorakoen aurrean) proiektuan ere parte hartu du. Espainian, Osasun Publikoak ez ezik, Aragoiko (Hospital Servet) eta Euskal Herriko (Donostia Unibertsitate Ospitalea) ospitaleek ere parte hartu dute. Oinarri ospitalarioa duten kasuen eta kontrolen azterketetan datza, gripearen aurkako txertoak Europako laborategietan egiaztatutako kasuetan duen eraginkortasuna ikusteko.

Txosten honen beste atal batean dago lortutako datuen emaitzen laburpena (19 orr.). Edonola ere, txertoaren eraginkortasuna % 50 baino txikiagoa izan da.

Gripearen aurkako txertaketaren estrategia konplikazio larrien prebentzioan eta gripeari egotzi dakizkikeen heriotzen murrizketan oinarritzen da, pertsona helduetan eta azpian gaixotasunen bat edo gripe larria izateko arrisku faktoreak dituzten pertsonetan, bereziki. Arrisku taldeetan txertoaren estaldura txikia izateak gripearen

infekzioaren ondoriozko konplikazioak ugari ditzake. Nahiz eta denboraldi jakin batean pentsatu gripearen aurkako txertoaren eraginkortasuna apala/baxua izango dela gripearen infekzio egiaztatua prebenitzeko, eraginkortasun horrek eragin handia izan dezake osasun publikoan, gripeagatik konplikazioak edukitzeko arriskua duten pertsonen ospitaleratze eta heriotza kopurua txikitzeari dagokionez. Hori dela-eta, gripearen aurkako txertaketa-aholku ofizialak betetzea gomendatzen da.

### **1.7.- Gripearen epidemia-agerraldiak.**

2017-18 denboraldian, gripe egiaztatuaren sei agerraldi izan dira geriatrikoetan. Horietako bat, azpimotarik gabeko A birusak eragindakoa, bi A H3 birusak eragindakoak, eta hiru B birusak eragindakoak. Horietan guztietan, ikerketa epidemiologikoa egin ez ezik, aholku higieniko/sanitarioak ere eman dira.

### **1.8.- Ospitaleratutako gripe-kasu baieztatu larriak (OGKBL-EAE).**

2017-18 denboraldian, Gurutzetako, Basurtuko, Donostiako eta Arabako unibertsitate ospitaleek hartu dute parte ospitaleratutako gripe-kasuen jagoletzan, bai eta Galdakaoko ospitaleak, San Eloy ospitaleak eta Santa Marina ospitaleak ere, kasuen larritasuna zeinahi izanda ere. Jagoletza horren helburua da gripe-epidemiek kasuen ospitaleratzean duten eragina aztertzea.

Denboraldiaren hasieratik, ospitaleratutako gripe-kasu baieztatu larriak (OGKBL) 2043 izan dira jagoletzan parte hartzen duten EAEko 7 erietxeetan, eta horietatik 446k (%21,83) betetzen zituzten larritasun irizpideak (OGKBL) 1 taulan, bi multzo horietako kasuen kopurua agertzen da, adin-taldearen arabera; eta 2 taulan, identifikatutako birus mota/azpimoten arabera.

### **1 Taula.- Gripe egiaztatuagatik ospitaleratutako kasuak, adin-taldearen arabera. [EAE 2017-2018]**

Adina	Ospitaleratuak		Ospitaleratu larriak (OGKBL)	
	N	%	N	%
0-4	64	3,1	25	5,6
5-14	47	2,3	7	1,6
15-64	488	23,9	124	27,8
> 64	1.444	71,7	290	65,0
<b>Guztira</b>	<b>2.043</b>	<b>100</b>	<b>446</b>	<b>100</b>



**2 Taula.- Gripe egiazatuagatik ospitaleratutako kasuak, birusaren azpimotaren arabera. [EAE 2017-2018]**

	Ospitaleratutak		Ospitaleratu larriak (OGKBL)	
	N	%	N	%
<b>Birusa</b>				
<b>A</b>	302	14,7	64	14,3
<b>A(H1N1)pdm09</b>	53	2,6	27	6,1
<b>AH3</b>	187	9,2	55	12,3
<b>B</b>	1.501	73,5	300	67,3
<b>Guztira</b>	2.043	100	446	100

Ospitaleratutako kasuen %73,5etan (1.501) B motako birusak isolatu ziren; isolatutako A motako kasuak, berriz, %26,5 izan ziren (542).

Ospitaleratutako gripe-kasu larrien batez besteko adina 67 urtekoa izan da (0-98 urteko heina) eta mediana 74 urtekoa. Ehuneko 52 gizonak ziren. Ospitaleratutako gripe-kasu baiezatu larrien %84,1ek (375 kasu) gripegatik konplikazioak edukitzeko arrisku faktoreak edota 64 urte baino gehiago zituzten. Txertoa jartzeko hautagai ziren 374 kasuetatik 165ek (%44,1) ez zuten jarrita txertoa. Lau kasu oso larriak izan ziren, haurdun zeuden emakumeetan; horietako bakar batek ere ez zeukan jarrita txertoa.

Kasuen %65 urtekoak edo hortik gorakoak ziren, sare jagoleak estatu mailan ikusitako datuekin bat etorritz. 3. taulan erregistratutako kasuen arrisku-faktoreen eta konplikazioen banaketa ikusten da.

**3. taula. OGKBL. Arrisku-faktoreak eta konplikazioak (%). [EAE, 2017-18]**

Arrisku-faktoreak	%
Gaixotasun kardiobaskular kronikoa	43,9
Diabetesa	20,4
Arnas bideetako gaixotasun kronikoa	26,5
Immunoeskasia	8,1
Giltzurrunetako gaixotasun kronikoa	10,8
Gaixotasun onkologikoa	12,3
Obesitatea	4,5
Gaixotasun hepatiko kronikoa	2,9
Konplikazioak	
Pneumonia	73
ADSA*	5,2
Bakterioek eragindako koinfekzioa	23,4
Organo anitzeko porrota	5,9

\*ADSA: Arnas distresaren sindrome akutua


Ospitaleratutako 442 gripe-kasu baieztatu larrietatik 140 (%31,4) ZIUn sartu behar izan zituzten; horietatik %82,1ek gripeagatik konplikazioak edukitzeko arriskuak edo 64 urte baino gehiago zituzten. Txertoa jartzeko hautagai ziren 115 kasuen %56,5ek (65 kasu) ez zuten jarrita txertoa.

Denboraldiaren hasieratik 97 heriotza izan dira (%21,7) ospitaleratutako 446 gripe-kasu baieztatu larrien artean (batez besteko adina, 77 urte; 0-97 urteko heina), eta %81,4 64 urtetik gorakoak ziren. Ehuneko %51,5 gizonak ziren. Txertaketaren egoeraren eta txertoaren inguruko informazioa eman zuten hildako laurogeita hamahiru kasuetatik %35,5ek ez zuten jarrita txertoa.

OGKBLen ospitalizazio-egunei dagokienez, ospitalizazioak 10 egunekoak izan dira batez beste, eta mediana 7 egunekoa.


6. irudian, asteen arabera agertzen dira ospitaleratutako gripe-kasu baieztatu larriak (OGKBL), ZIUn sartutakoen eta hildakoen kopuruarekin batera.

6. irudia. Ospitaleratutako gripe-kasu baieztatu larrien eboluzioa, larritasun mailaren arabera. 2017-18 denboraldia, EAE.




7. irudian, gripe-denboraldi honetako OGKBLen, ZIUn sartutakoen eta hildakoen ehunekoa ageri da, adin-taldean arabera. Hildako asko, %81,4 zehazki, 64 urtetik gorako pertsonak izan ziren.

7. irudia.- 2017-2018 denboraldiko OGKBLak, ZIU sartutakoak eta hildakoak (%)



8. irudian ikusten da azken denboraldian handitu egin dela ospitaleratutako gripe-kasu baiezatu larrien, ZIU sartutakoak eta hildakoak kopurua, aurreko denboraldiaren alderatuta.


8. irudia.- OGKBLak, ZIU sartutakoak eta hildakoak. 2013-14 eta 2017-18 artean.



Desberdintasun nabarmenak daude ( $p < 0,05$ ) 2017-18 denboraldian erregistratutako heriotzen ehuneko handiagoan, aurreko denboraldien aldean.


9. irudian, adin-taldearen eta dagokion denboraldian nagusitutako birus azpimotaren arabera egin da azterketa. Grafikoan islatutako denboraldietan, 64 urtetik gorako herritarrei eragin die gehien, mota/azpimota nagusia A(H1N1)pdm09 izan denean salbu; kasu horretan, 45-64 urtekoen taldeari eragin dio gehien.

9. irudia.- OGKBLak (%). EAE 2013-14 eta 2017-18 artean



ZIU n sartu behar izan zituzten pertsonen edo hildakoen kasuak bereziki aztertuta, ikusten da (10. irudia) 2017-18 denboraldi honetako datuek balio handiagoak eta antz handiagoa dutela AH3N2 nagusi izan zen denboraldietako datuekin, A(H1N1)pdm09 nagusi izan zen denboraldietako datuekin baino.

10. irudia.- 64 urtetik gorako OGKBLak (%) ZIU ospitaleratuak eta hildakoak.




### 1.9.- Gripe-sindromeagatik Lehen Mailako Arretan (LMA) izandako kontsulten maiztasuna.

Osakidetzaren Lehen Mailako Arretako sarean, 2017-18 denboraldian, guztira, gripe-sindromearekin lotutako 50.158 kontsulta erregistratu ziren; horrek 100.000 biztanleko 2.308,37 kasuko tasa adierazten du.

Eskaera handiena 2018ko 2. astean zenbatu zen, 7.222 kontsultarekin (100.000 biztanleko 332,37 kasuko tasa). Kontsulten % 94,4 hamabi asteko aldi batean erregistratu ziren (2017ko 50. astetik 2018ko 9. astera). 11. irudian, azken bi denboraldiak konparatzen dira.

11. irudia.- Gripe-sindromeagatiko kontsultak LMA. 2016-17 eta 2017-18 denboraldiak




Gripe-sindromeagatiko kontsulten maiztasun-taula maximo gordinak deskribatzen dira hurrengo taulan, 100.000 biztanleko, eskualdeka/ESika eta asteka.

ESI/Eskualdea	Astea	Erregistratutako tasarik handiena
Araba	2/2018	297,1
Arabako errioxa	5/2018	341,8
Debagoiena	1/2018	385,2
Debarrena	2/2018	328,2
Bidasoa	2/2018	372,1
Barakaldo Sestao	3/2018	277,2
Barrualde Galdakao	2/2018	331,8
Bilbao Basurto	3/2018	289,4
Donostialdea	2/2018	364,3
Ezkerraldea Enkarterri Cruces	4/2018	363,4
Goierrri Alto Urola	2/2018	438,2
Tolosaldea	2/2018	473,0
Uribe	2/2018	321,6


12. irudian ikusten denez, adin-talde guztietan 2/2018 eta 4/2018 asteen artean izan zen gripe-sindromearen maiztasun handiena, 5-14 urtekoen adin-taldean 560,3 kasu azpimarratu behar dira 100.000 biztanleko.

12. irudia.- Gripe-sindromeagatiko kontsultak, adin-taldearen arabera. (Tasak 100.000 biztanleko). Osakidetza. 2017-18 denboraldia.



Lurrealde Historikoka, hauek dira 100.000 biztanleko tasa gordin handienak: Araban, 300,6; Bizkaian, 308,8, eta Gipuzkoan, 384,3. Horiek 2018ko 2. astean erregistratu ziren (13. irudia).

13. irudia.- Gripeararen sindromeagatiko kontsultak Lurrealde Historikoka (tasak 100.000 biztanleko). Osakidetza. 2017-18 denboraldia.




### 1.10.- Arnas birus sintzitalaren (ABS) zaintza mikrobiologikoa.

Denboraldiaren hasieratik, gripearen zaintzarekin paraleloan, mikrobiologia-laborategiek 1.321 ABS kasu jakinarazi dituzte (15. irudia). Pazienteen % 51,85ek 0 eta 2 urte artean dituzte.

ABS jakinarazpenak 45. astean handitu ziren, gripe-tasak epidemia-atalasea gainditu baino bost aste lehenago. 2017ko 52. astera arte, jakinarazpen kopuruak goranzko joera mantendu zuen, gripe-gailurrera iritsi baino hiru aste lehenagora arte, hain zuzen. Hortik aurrera, jakinarazpen kopuruak behera egin zuen (14. irudia).

14. irudia.- ABS isolamenduak eta gripe-tasak 100.000 biztanleko. EAE, 2017-18 denboraldia



## 2. GRIPEA ZAINTEKO ESPAINIAKO SISTEMA ZELATARIA (ScVGE)

### 2.1.- 2017-18 denboraldiko gripe-jarduera (ScVGE).

Denboraldi honetan, gripearen uhin epidemikoa goiz hasi zen (50/2017 astean, eta gripearen intzidentzia-tasa egiaztatua 55,77 kasukoa izan zen 100.000 biztanleko), eta goia ere goiz jo zuen jarduerak (03/2018 astean, eta gripearen intzidentzia-tasa egiaztatua 277,41 kasukoa izan zen 100.000 biztanleko); iraupena, berriz, luzea izan zen (13 aste).

Asturiasko sarea izan zen lehena oinarrizko atalasetik gorako intzidentzia-tasak jakinarazten, eta bertan (Asturiasen) jo zuen uhin epidemikoak goia. 48/2017 astean

areagotu egin zen gripe-jarduera, iparraldeko (Asturias) eta ipar-mendebaldeko eremuetan, bereziki, bai eta penintsularen mendebaldean ere.

3/2018 astean (intzidentziak goia jo zuen aste horretan, nazio mailan), gripe-jarduera handia antzeman zen zaintzapean zegoen lurralde-zati handiengan; gripe-jardueraren tasa handienak penintsularen iparraldean eta erdialdean izan ziren.

Gripe-jardueraren intentsitatea ertaina/altua izan zen denboraldi horretan, B motako birusa (%59) nagusi izatearekin eta A motako birusaren (%41) kontribuzio gero eta handiagoarekin lotuta, A(H3N2)( 59%) azpimotarena nagusiki, baina baita A(H1N1)pdm09 azpimotarena ere.

Gripearen intzidentzia-tasa orokor metatua, adinaren arabera, 2.313 (IC %95 izan zen: 2.281-2.346) kasukoa 100.000 biztanleko. Adin-taldeen arabera, intzidentzia-tasa metatu altuenak 0-4 urtekoen taldean ikusi ziren (5.110 kasu/100.000 biztanle), eta, ondoren, 5-14 urtekoen taldean (40242 kasu/100.000 biztanle). 15-64 urtekoen eta 64 urtetik gorakoen taldeetan, gripearen intzidentzia-tasa metatuak 1.971 eta 1.163 kasukoak izan ziren 100.000 biztanleko, hurrenez hurren.

ABSaren zirkulazio-intentsitatea (laginen %0,5 positiboak) 49/2017 astetik (%27ko tasa) aurrera hasi zen jaisten, aste horretan jo baitzuen goia birusaren detekzio-tasak.

## **2.2.- Datu birologikoak (ScVGE).**


Goia 52/2017 astean (%72) jo ondoren, birusaren detekzio-tasak egonkor mantendu ziren (%70-72) 03/2018 astera arte, eta, handik aurrera, behera egin zuten, gorabeheraren batekin, B motako birusaren detekzio-tasen txikitzearen ondorioz. Hala ere, A motako birusaren detekzio-tasek gora egin zuten pixkanaka 06/2018 astetik 11/2018 astera arte, eta handik aurrera jaisten hasi ziren horiek ere. Beraz, positiboen ehunekoa %40tik gora mantendu zen 15 astean jarraian, 50/2017 astetik 12/2018 astera.

2017-18 denboraldiaren hasieratik, gripearen birusaren 13.596 detekzio jakinarazi zaizkio Gripea Zaintzeko Espainiako Sistemari; horietatik %26 iturri zentineletatik heldutakoak. Birusen detekzio guztien %53,2 B motako birusarenak ziren, %46,7 A motako birusenak (azpimotadunen %72etatik, %65 A(H3N2) izan ziren eta %35 A(H1N1)pdm09,) eta %0,1, C motakoak.



3.509 detekzio zentineletatik, laginen %59 B motako birusenak izan ziren, %40,9 A motako birusenak eta %0,1, C motakoenak. A azpimotako birusen %94etatik %59 A(H3N2) izan ziren, eta %41, A(H1N1)pdm09. (15. irudia)

15. irudia.- Gripeareen birusaren detekzio zentinelak birusaren motaren/azpimotaren arabera. 2017-2018 denboraldia, Espainia




Iturria: Epidemiologiako Zentro Nazionala. Gripea Zaintzeko Espainiako Sistema Zelataria

Iturri ez-zentineletako 10.087 detekzioetatik %51% B motakoak izan ziren; %48,9 A motakoak, eta %0,1 C motakoak. A birus azpimotadunen %66etatik %67 A(H3N2) izan ziren.


Gripeareen 1.274 birus karakterizatu dira guztira, Gripea Zaintzeko Espainiako Sistemak identifikatutako birus detekzioen %9,4, alegia; horietatik %19 detekzio zentinelan, eta %6 ez-zentinelan. A(H3N2) gripeareen 395 birusetatik 260 3C.2a1 (A/Singapore/INFIMH-16-0019/2016) taldekoak ziren, eta 135 3C.2a (A/HongKong/4801/2014) taldekoak. 101 A(H1N1)pdm09 birus ere karakterizatu dira, 6B.1 (A/Michigan/45/2015) taldekoak, txertoaren anduiarekin bat datozenak. B birusari dagokionez, 778 birus karakterizatu dira, horietatik 68 Victoria leinukoak eta 710 birus Yamagata leinukoak; azken hori ez dago denboraldi honetako sasoiko txertoan sartuta. Victoria birusetatik hamaika B/Brisbane/60/2008 taldekoak ziren, txertoaren birusarenak, eta beste berrogeita zazpiak, B/Norway/2409/2017 talde berrikoak, txertoaren anduiaren desberdinak. (16. irudia).

16. irudia.- Gripeareen birusaren detekzioen karakterizazio genetikoak.  
2017-2018 denboraldia, Espainia



### A Gripeareen Birusa

- A/HongKong/4801/2014(H3N2)
- A/Singapore/16-0019/2016(H3N2)
- A/Michigan/45/2015(nH1N1)



### B Gripeareen Birusa

- B/Phuket/3073/2013 (linaje Yamagata)
- B/Brisbane/60/2008 (linaje Victoria)
- B/Norway/2409/2017 (linaje Victoria)

Iturria: Epidemiologiako Zentro Nazionala. Gripea Zaintzeko Espainiako Sistema Zelataria

### 2.3.- Arnas Birus Sintzitala.

Denboraldian zehar ikusi da ABSaren detekzio tasak gora egin duela 42/2017 astetik 49/2017 atera, aste horretan positibotasun tasa gorenera (%27) iritsi arte. Handik aurrera, jaitsi egin zen ABSaren zirkulazioa, baina gripeareen birusen zirkulazio-intentsitateak gora egin zuen.

### 2.4.- Gripe-birusekin lotutako agerraldiak (ScVGE).

2017-18 denboraldian 27 gripe-agerraldi jakinarazi ziren, zazpi autonomia-erkidegotan. Hamalau agerralditan (%51,85) A gripeareen birusa (9 ANS eta 5 A(H3N2)) identifikatu zen kausa-agente gisa, eta hamahirutan (48,15) B motako birusa. Karakterizatutako 3 agerraldietatik bi B/Phuket/3073/2013 birusak eragindakoak izan ziren, eta bestea Singapore/INFIMHH-16-0019/201 birusak. Erasoaren tasa orokorra %15,2koa izan zen. Agerraldiekin lotuta jakinarazitako kasuetatik 91 ospitalizatu egin behar izan zituzten, eta 24 hil egin ziren; azken horiek, geriatrikoetako agerraldietan.

Hogeita bi agerraldietako kasu gehienak (%79) geriatrikoetan bizi ziren. Gaixoen batez besteko adina 85 urtekoa izan zen (RIC: 82-89). Txertaketa estalduraren mediana

%94koa (heina: 89-95%). Eraso-tasa %12,8koa izan zen. Txertatuetan (%10,5), eraso-tasak ez-txertatuetan (%13,7) baino txikiagoak izan ziren.

Hiru agerraldi eskola esparruan izan ziren. Eraso-tasa %12koa izan zen. Aztertutako laginen %82 positiboak izan ziren gripearen birusetan; agerraldietako bat azpimotarik gabeko A birusak eragin zuen, eta beste biak, B motako birusak.

Osasun-erakundean izandako agerraldia B motako birus batek eragin zuen, eta aztertutako lagin guztiak (%100) positiboak izan ziren. Gaixoen adinaren mediana 81 urtekoa izan zen (RIC: 81-81).

Egonaldi luzeko egoitzan izandako agerraldia A(H3N2) birusak eragin zuen, eta aztertutako lagin guztiak positiboak izan ziren. Gaixoen adinaren mediana 49 urtekoa izan zen (RIC: 49-49).

Agerraldien banaketa sintomen hasiera asteari dagokionez, 46/2017 eta 13/2018 astean artean izan zen.

### **2.5.- Ospitaleratutako gripe-kasu baieztatu larriak (OGKBL).**

2017-18 denboraldian ospitaleratutako gripe-kasu larrien zainketan Espainia guztiko 95 ospitalek hartu zuten parte, eta zaintzapean izan ziren herritarrak 23.460.172 izan ziren orotara (Espainiako biztanleriaren % 50,7).

Gripea baieztatuta izanda ospitaleratutako 5.977 kasu larriren (OGKBL) berri eman zen, 19 autonomia-erkidegotan. Paziente horietatik 1.281 (% 21,8) zainketa intentsiboen unitatean ospitaleratu zituzten, eta 991 (% 17,4) hil egin ziren. 40/2017 astean denboraldiko lehen bi OGBKLak jakinarazi ziren, eta 19/2018 astean, azken lauak.

OGBKL guztietatik %54 gizonak izan ziren. Adinaren mediana 73 urtekoa izan zen (RIC: 58-84), eta kasurik gehienak 64 urtetik gorako pertsonenak (%66). Ugalkor izateko adinean zeuden 183 emakumeetatik 19 (%10,4) haurdun zeuden.

Kasuen %54tan egiaztatu zen B motako gripearen birusa; %45,9tan, A motako birusa, eta %0,1ean, C motako birusa. Azpimota zuten A detekzioetatik (1.139 kasu, kasu guztien %42) %62 A(H3N2) izan ziren, eta %38, A(H1N1)pdm09.

Gripeagatik konplikazioak edukitzeko arrisku-faktoren presentziari dagokionez, 4.675 kasuk (informazio hori zuten kasuen %88) arrisku-faktoreren bat zuten; ohikoenak gaixotasun kardiobaskular kronikoa (%45), diabetesa (%31) eta biriketako gaixotasun kronikoa (%30) izan ziren.

Denboraldi horretan, pneumonia (%73) izan zen konplikazio ohikoena, 2014-15 eta 2016-17 denboraldien antzera, A(H3N2) mota ibili baitzen, eta 2015-16 denboraldian, A(H1N1)pdm09 mota ibili zenekoan, baino txikiagoa.

Txertaketa-egoerari dagokionez, 4.587 xede gaixoetatik %53k ez zuten jarritako denboraldi horretako gripearen aurkako txertoa.

OGBKLen ospitalizazio-tasen arabera egin da denboraldi honetako epidemiaren inpaktuaren estimazioa, MEM metodoarekin ezarritako atalaseen bidez, eta eragin handia izan du ospitaleetako gaixotze-tasan, 64 urtetik gorakoen taldean batez ere.

Denboraldi honetako OGBKL guztietatik, 1.281 kasu ZIU sartu zituzten (informazio hori zutenen %21,8).

40/2017 astetik 20/2018 astera, 991 heriotza izan ziren OGBKLen artean, 17 autonomia erkidegotan. Ehuneko berrogeita hamabi (%52) gizonak ziren, eta adinaren mediana 82 urtekoa izan zen (RIC: 71-88). Heriotza-tasak gora egiten du adinarekin, eta kasu gehienak (%85) 64 urtetik gorakoenak izan dira. Kasuen %59tan B gripearen birusaren infekzioa egiaztatu zen, eta %41etan, A motarena. 919 kasuren informazioa zegoen, eta horietatik %98k gripegatik konplikazioak edukitzeko arrisku-faktoreren bat zuten: gaixotasun kardiobaskular kronikoa (%55), diabetesa (%31) eta briketako gaixotasun kronikoa (%30). Kasuen %54k pneumonia garatu zuten, eta %29 ZIU sartu zituzten. Txertoa jartzeko gomendioa zuten 864 kasuetatik %49k ez zuten jarrita denboraldiko gripearen kontrako txertoa.

2017-18 denboraldiko gripe larriaren hilgarritasuna, OGBKL guztien heriotzen eta ZIU sartutakoen arteko heriotza-terminoetan estimatutakoa, %17,3koa (IC %95: 16,4-18,3) eta %22,8 (IC %95: 20,5-25,3) izan ziren, hurrenez hurren. Era berean, OGBKLen arteko heriotzei begiratuta, 2014-15 eta 2016-17 denboraldietakoen antzekoa izan zen, A(H3N2) zirkulazioa nagusi izanda. MOMO (Eguneko Hilkortasunaren Monitorizazioa) sistemak gehiegizko hilkortasuna estimatu zuen, 64 urtetik gorakoetan kontzentratuta, eta gripearen uhin epidemikoaren garapenarekin kointziditu zuen.

## ***2.6.- Ospitaleratutako gripe-kasu egiaztatutako (Chosp).***

2017-18 denboraldian, OGBKLen zaintzan parte hartzen duten ospitaleek hartu dute parte ospitaleratutako gripe-kasu larrien zaintzan, gaixotasunaren larritasuna zeinahi izanda ere (Chosp). Zaintza horren helburua da gripe-epidemiek kasuen ospitaleratzean duten inpaktuaren eboluzioa aztertzea eta Chosp kopuruaren estimazioak egin ahal izatea nazio mailan.

Denboraldi honetan, ospitaleratutako 16.810 gripe-kasu egiaztatu jakinarazi dira. Adin-taldean araberako banaketa OGBKLen antzekoa izan zen, eta kasu gehienak 45-64 urtekoen artean kontzentratu ziren (%25 Chospen artean, eta %20 OGBKLen artean). Mota/azpimotaren araberako kasuen banaketa ere antzekoa izan zen OGBKLei dagokionez; nolana ere, B motako birusaren ehunekoa pixka bat handiagoa izan zen (%57 Chospen artean, eta %54 OGBKLen artean). Azpimota duten A detekzioen (%45) %69 A(H3N2) izan ziren, eta %31, A(H1N1)pdm09. Chosp kasu guztietatik ZIUn sartu zituztenen portzentajea %7,5ekoa izan zen (IC %95: 7,1-7,9), eta hilgarritasuna, %5,7koa (IC %95: 5,4-6,0).

Espainiako herritarren artera estrapolatuta, estimatu zen Chosp kopurua 51.677koa izango zela estimatu zen, eta tasa metatu estimatua 115,5 Chosp kasukoa izan zen 100.000 biztanleko (IC %95: 114,5-116,5). 64 urtetik gorako taldean, Chosp kasuen guztizko estimazioa 27.833 kasukoa izan zen; tasa metatu estimatua, 323,6 Chosp/100.000 biztanleko (IC %95: 319,8-327,4)

### ***2.7.- 2017-18 denboraldiko gripearen aurkako txertoaren eraginkortasuna***

ScVGen sartutako sare zelatarien esparruan egindako 2017-18ko gripearen aurkako txertoaren eraginkortasunari buruzko azterketek eta I-MOVE Europako proiektuaren barruko cycEVA azterketak (Gripearen Aurkako Txertoaren Eraginkortasun Kasuak eta Kontrolak), gripearen aurkako txertoak B azpimotak eragindako infekzio baieztatuen aurka zuen efektua ezagutarazi zuen, adin guztietan (%35), 64 urtetik gorako artean, txertoaren eraginkortasuna % 48koa da.

I-MOVE+ proiektuak, Aragoiko eta Euskal Herriko ospitale eta osasun publikoko unitateekin, gripearen aurkako txertoaren eragingarritasunaren estimazioak egin zituen, eta %20 izan ziren 64 urtetik gorako gripe-kasuen ospitaleratzeak, lehen arretan aurkitutako kasuak baino gutxiago.

A(H3N2) motako gripeari dagokionez, txertoak ez zuen erakutsi babesik lehen arretan egiaztatutako infekzioaren aurka, baina gripearen aurkako txertoaren eragingarritasunaren estimazioa apala/txikia izan zen gripearen forma larrien kontra. Txertoaren A(H1N1)pdm09 gripe arin egiaztatuaren aurkako eraginkortasuna A(H3N2) eta B birusaren kontrako eraginkortasuna baino altuagoa izan zen.

Txertoaren eraginkortasunaren inguruko estimazio guztiak Europa mailan lortutako estimazioen tartean egon ziren.

Gripearen aurkako Espainiako txertoaren eraginkortasunaren inguruko atariko emaitzek txertoen anduiak hautatzen dituen OMEren Batzordearen erabakiari lagundu zioten, 2018ko otsailean, hurrengo denboraldiko (2018-19) gripearen aurkako txertoaren gaineko gomendioei dagokienez.

### **3. GRIPEAREN NAZIOARTEKO BILAKAERA**

---

Gripearen birusa Europa Eskualdean barrena ibili da denboraldi honetan. 52/2017 astetik 12/2018 astera, %40etik gorakoa izan da bildutako lagin zentinelaren arteko positiboaren kopurua.

Denboraldi honetan, oro har, zentinelak eta ez-zentinelak zainketa sistemen bitartez, B motako gripearen birusa antzeman da gehienbat, B/Yamagata leinuarekin lotutakoak batez ere. Hala ere, Sistema zentinelak jakinarazitako A gripearen azpimota gehienak A(N1H1)pdm09 izan ziren; sistema ez-zentinelaren bitartez, aldiz, antzekoan izan ziren antzemandako A(H3N2) eta A(N1H1)pdm09 birusen kopuruak. Ospitale inguruetatik eta adinekoentzako egonaldi luzeko arreta etxeetako lagin ez-zentinelaren proportzio handiagoetatik izan daiteke hori, A(H3N2) birusaren zirkulazioak gaixotasun larriagoa eragiten baitute, askotan, azken horietan, A(N1H1)pdm09 birusek ez bezala, horren adin ertaineko gaixoei eragiten baitie gehiago.

40/2017 astetik, 2.146 birus karakterizatu dira.

Karakterizatutako 1.118 A(H3N2) birusetatik 650 (%58) 3C.2a taldekoak ziren (talde hori OMEk 2017-18 denboraldian ipar hemisferiorako gomendatutako txertoan sartuta zegoen), 48 birus (%4) 3C.2a1 taldekoak, eta 20 birus (%2) 3C.3 taldekoak. Karakterizatutako 814 A(N1H1)pdm09 birusetatik 812 6B.1 taldekoak ziren, A/Michigan/45/2015 txertoaren osagaia, eta 2, berriz, 6B taldekoak, A/Sudafrica/3626/2013 txertoarenak.

B motako birusari dagokionez, B/Victoria birusetatik 74 (%48) azpitalde berri batekoak ziren, B/Norway/2409/2017 motakoak, eta hainbat herrialdetan detektatu dute.

B/Yamagata leinuari dagokionez, 1.782 birus 3 taldekoak ziren, B/Phuket/3073/ motakoak, eta 1, berriz, 2 taldekoa, B/Massachusetts/02/2012 motakoa.

ZIUtik kanpo ospitaleratutako gripe-kasu egiaztatuen kasuei dagokienez, 40/2017 eta 20/2018 astean arteko isolamenduen %61 B motako birusarenak izan ziren, eta erregistratutako kasuen %57, 64 urtetik gorako gaixoenak.

Denboraldi honetan ZIUn sartutako kasuen %53 gripearen A motako birusaren ondorio izan ziren, eta %47, B motako birusen ondorio. Gripearen A motako birusen %58 A(N1H1)pdm09 izan ziren, eta %42, A(H3N2). Adina erregistratuta duten kasuen %44 15-64 urtekoen heinean zeuden, eta %48k 64 urtetik gora zituzten.

Europako 20 herrialde, Espainia artean, partaide dituen EuroMoMo (European monitoring of excess mortality for public health action) proiektuak kausa guztien ondoriozko gehiegizko hilkortasuna jakinarazi zuen 64 urtetik gorakoaren artean, 2017 abendutik 2018ko otsailera.

#### **4. GRIPE ZOOTIKOA EDO ALDAERA**

---

2003tik orain arte (2018/07/18), Osasunaren Mundu Erakundeari laborategiek gizakietan baieztatutako **A(H5N1)** hegazti-gripe 860 kasu jakinarazi zaizkio ofizialki. Kasuok 16 herrialdetan eman dira eta guztira 454 heriotza izan dira. **A(H5N6)** hegazti-gripeari dagokionez, 2014ko maiatzetik OMEren azken txostenera (2018/05/28), gizakietan izandako 19 infekzio-kasu jakinarazi dira; guztira 6 heriotza izan dira. 2013ko martxotik orain arte, Osasunaren Mundu Erakundeari, guztira, laborategiek baieztatutako A(H7N9) gripe-birusak eragindako giza infekzioen 1.567 kasu jakinarazi zaizkio, 615 heriotza barne.

A(H7N9) hegazti-gripearen zaintzarekin lotuta Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundeak (FAO) jasotako Txinako jakinarazpenen arabera, oraindik ere, lagin positiboak detektatzen dira, batez ere bizirik dauden hegazti merkatuetan, saltzaileetan eta merkataritza eta hegazti-hazkuntzako ustiapenetan. Egungo datu epidemiologikoen eta biologiaren adierazten dute birusak ez duela transmisio jarraiturik lortu gizakietan, eta, beraz, Europar Batasunean birusa zabaltzeko aukera txikia da une honetan.

#### **5. OSASUNAREN MUNDU ERAKUNDEAREN AHOLKUAK 2018-19 DENBORALDIKO GRIPEAREN AURKAKO TXERTORAKO**

---

OMEak aholkatu du 2018-2019 denboraldirako txerto tetravalenteek ondorengo osagai hauek edukitzea iparraldeko hemisferioan:

- A/Michigan/45/2015 (H1N1)pdm09 anduiaren antzekoa
- A/Singapore/INFIMH-16-0019/2016(H3N2) anduiaren antzekoa
- B/Colorado/60/2017 anduiaren antzekoa (B/Victoria/2/87 leinua)
- B/Phuket/3073/2013 anduiaren antzekoa (B/Yamagata/16/88 leinua)

2018-2019 denboraldirako ipar hemisferioko txerto trivalenteko B birusaren anduia B/Colorado/60/2017 (B/Victoria/2/87) anduiaren antzekoa izatea gomendatzen da.

## 6. Erreferentzia bibliografikoak.

- European Influenza Surveillance Network (EISN) .  
<https://ecdc.europa.eu/en/about-us/partnerships-and-networks/disease-and-laboratory-networks/eisn>
- Flu News. Joint ECDC-WHO/Europe.  
<https://flunewseurope.org/Archives>
- Who Situation updates. Avian and swine influenza.  
[http://www.who.int/influenza/human\\_animal\\_interface/en/](http://www.who.int/influenza/human_animal_interface/en/)
- Sistema de Vigilancia de la Gripe en España (SVGE)  
<http://vgripe.isciii.es/gripe/inicio.do>
- Recommended composition of influenza virus vaccines for use in the 2018-2019 northern hemisphere influenza season  
[http://www.who.int/influenza/vaccines/virus/recommendations/201802\\_qanda\\_recommendation.pdf](http://www.who.int/influenza/vaccines/virus/recommendations/201802_qanda_recommendation.pdf)
- Efectividad vacunal  
<https://sites.google.com/site/epiflu/Home>  
<http://www.i-moveplus.eu/>
- EuroMOMO. European monitoring of excess mortality for public health action.  
Disponible en: <http://www.euromomo.eu/>.